


25. Hou pitxu! hou!

*Borda hütsetan deuseren
ez hartzea*



Zuberoako Maskarada antolatu nahi duen herriak dantzari on ugari izan behar du, herriaren ohorea jokoan bait dago. Garai batean larogeitik goiti partaide zituzten Maskaradak ezagutu dira, gaur egun hogei lagun aski dira. Behin antolatuz gero herri-herri igandeoro ibiliko da; normalki urtean herri batek bakarrik hartzen du bere gain ardura hori, baina lehenagoko denboretan hiru eta lau Maskarada desberdin izan ohi ziren urte berean.

Goizetik abiatzen dira dagokien herrira eta han, dantzan, etxez-etxe ibiltzen. Lehen oinez, jakina, joan beharra zuten eta zain zeuden bertakoek, barrikada bat eraikirik, herrira sartzea «oztopatu» egiten zuten, dantza eta sasi-burruka zenbaiten ondoren —barrikada jaustia— lortzen zutena.

Bazkalondoan plazara allegatzen da Maskarada, beren dantzak eta jokoak egiteko.

Maskaradan bi pertsonaia mota daude: **gorriak** eta **beltzak**. Gorriak jende zintzoa, ona da; bere gain daude dantzarik ikusgarrienak. Gorrien artean Txerrero, Gathuzain, Kantiniersa, Zamalzain, Entseñaria (guzti hauek Aintzindariak dira, dantzari nagusiak), Jauna, Anderia, Laboraria, Laborarisa, Marexalak eta Küikülleroak aurkitzen ditugu. Beltzak gorrien aurkakoak dira: gaixtoak, ahalkegabeak, zikinak, ebasleak, gezurtiak, andrekarriak, ardozaleak... xiberotar baten hitzetan: —*Beltzeria tzar hori urdankeria bat düziü. Basa düziü, basa!* Beltzen multzoan Kherestuak —nausi eta mithil—, Xorrotxak —nausi eta mithil—, Buhameak, Kauterak —Kabana, kauter gchiena, Pupu eta Pitxu—, Bedezia —sendagilea— eta Bedezi lagun daude.

Gorrien eginkizuna dantzak diren bezala, beltzena jokiak egitea da; hauek, guztiek **Branle** dantza egin ondoren, Marexalekin hasten dira. Marexalek Zamalzain ferratu behar dute, lan zer bait ematen diena.

Kherestuek, **khestuen-dantza** eginik, Zamalzaina zikiratu behar dute, lehenbiziko saioan lortzen ez dutena. Kherestuen nausiak, bere mutilarekin —**mithila**— haserraturik, kauter bat —**Pitxu**— deitzen du lanean lagun dezan; Pitxuk Zamalzainaren ordezkari Kantiniersa harrapatzen du eta, jakina, ez dio zikiratzekorik aurkitzen. Huts honen ondoren eta Pitxu kanporaturik, mithilak berriz lagunduko du nausia bere eginkizunetan eta «potroak» —bi patata— aiera botako diruzte bukatutako lanaren seinale. Kauterak eta Buhamiak burrukan emango dira «potroak» hartu eta jan beharrez.

Aintzindariak **Gabota dantza** egin ondoren, Xorrotzak plazaratuko dira kantan. Hauek Jaunaren espata zorroztu behar dute, Pitxu deitu eta bota ondoren Kherestuek bezala, lortuko dutena; Jaunak lana ordainduta plaza utziko dute kantan.

Izugarrizko azantza, zarata eginez Buhamiak sartuko dira plazara eta Buhame Jaunak **manhementiak** esango ditu, zein baino zein basagoa.


Aintzindariak dantza bat —**Godalet dantza**— egingo dute orain, edalontzi —**godalet**— batekin, segur dantzarik ikusgarriena.

Orain Kauteren txanda da: Kabana, Pupu eta Pitxu. Pertz bat konpondu behar dute Jaunarentzat; saio zenbaiten ondoren Jaunak ordain gisa txanpon batzu jaurtikiko dizkie aiera. Pitxu, biltzera doanean, bere kideak eta Buhame guztiak gainera botako zaizkio hilik suertatuz. Bedeziak eta bere lankideek bertan ebaketa bitxia eginik berpiztuko dute Pitxu, guztien alegerako. Bukatzeko dantzatzen dute guztiek, ikusleak barne.



Musika

Maskaradaren musika xirulari bat eta atabalari/tabalari baten laguntza gaur egun, baina lehen xirulari soinua (goian) deritzan musika tresna ere batera jotzen zuten. Irudikoak Jan Mixel Bedaxagor xirulari, kantari, dantzari eta pastura egile ezaguna) eta Pierre Ager Garat—, bere etxearen inbentari-egagutua. Garat, urte luzean, Etxahun Iruri (ikus 27) zenaren balaria izan zen.




zinean

ki zahar honetan XX. mende hasierako Maskarada baten partaideak ikus ditzakegu. Usadio zaharra segituz k mutilak ziren, haien egitekoa bait zen Maskarada. Gaur egun neska askok parte hartzen dute gorrien aldean.




Pitxuren heriotza

Maskaradaren bukaeran, aipatu bezala, «istripu» lazgarri batean Pitxu hilik suertatzen da, gainerako kauterak eta buhame guztiek zapaldurik. Kauteren dolua handia da eta haren azkenahia —ordainia— irakurri ondoren behar diren «elizkizunak» ospatzen dituzte. Irudian Kabana «hil meza» ematen ari da.




Pertsonaiak



Txerrero



Gathuzain



Kantiniersa




Zamalzain


Txerrero: Maskarada irekitzen duena. Zaldi buztana duen makila luze bat larama eskuan eta gerriko bat dozenerli ezkilekin.

Gathuzain: Eskuan sorgin-gurizaia laramatza; haien bitartez jendea zirikatzen zuen, gaur egun ia egiten ez duena.


Kantiniersa: Aintzinako *buhamesaren* erdez ateratzen da, bere irudikoak Irun (G) eta Hondarribiako (G) alardeetan gertzen dira, bai eta Donostiako (G) anborradan ere.



Entseñaria



Kükülleroak



Marexalak



Kherestuak



Entseñaria: Xiberoko entseña eskuan arama.

Marexalak: Zamalzain ferratzen dutenak *jokü* ikusgarri batean.

Kükülleroak: Hauek gaur egun ez ute kasik parte hartzen. Branle dantza giten dute guztiekin batera soilik.

Kherestuak / Khestuak: Bizatzen ohi ira —nausia eta mithila—, Biarnesez a Euskaraz mintzo dira.




Jauna-Anderia




Laborari-Laborarisa

Jauna-Anderia: Dotore jantzirik eseta ikusten dituzte *joküak*.

aborari-Laborarisa: Herriaren orzkarri hauek ez dute lan handirik.




Xorrotzak



Buhamiak



Kauterak



Bedezia/ Medezia

Xorrotzak: Kapela gaitan urtuntxa itxura bana daramate. Euskaraz kantatzen badute ere, solasean Frantzia nahasten dute. Oso kantari onak, plaza kantuz eguratzen dute behin baino gehiagotan. Hona hemen erabilirako kanta baten bi bertso:

*Xorrotzak erran duzú egia bundia
Nekéz bizi dela laboraria
Eau eta nekezago xorrotzeria
Batez irabazten pintuaren saria.
Oraín ene mishiñla aigü lanila
Zorrotzia behar diagü jaunaren espata
Zorrotzen balinbadagü behar den bezala
Hiatú emanen dikik guri soldata.*

Buhamiak: Asteapitoenak, basakerietan ematen dute eguna. Buhame jaunak, dena den, beren manhamen-tuak esango ditu, hona hiru adibide gisa:

- 1.) *Lan borkale!* presentatzen den aldi oraz, tiro bat bota.
- 2.) *Astulitoki defendu!* gaiza hartze³... nun ez diren bestekak.
- 4.) *Jaterat eman nahi ez dianari⁴, mishiñ ibiratu!ko.* Burtat⁵ bat eskertzen ez dianari, bi mishiñreko.

Manhamentuz gain beste bertso desberdinak ere egin ditu buhame jaunak, gehienetan dauden herriarri dagozkionak, goresen ala gaitzesten herri jokaearen arabera. Adibidez, 1982 urtean Pagolan (Z) Dominique Agergarai buhame jaunak bertso hau egin zuen:

*Xiberoko noko huntan beñizi⁶ berbiñia
Uskaldun isanexa⁷ zaharren begiratzeak
Ta abalaz frantes gaizen saibers⁸ izateak.*

Altzain (Z) aldiz:

*Herri huntan zindien lehen oro dantzari eta kantari
Orai aldiz hullan⁹ oro pintukari¹⁰ eta xekari¹¹...
Ez dadin izan egin batez ibar esküña pikarra!¹²
Eta bizi dadin beñi Altzai!*

Kauterak: Haien artean kauter gehien **Kabana** izenekoa eta **Pitxu** txikiena daude; gehiago izaten ahal dira eta horrelako izenak erabiltzen dituzte: **Pupu**, **Tututu**, **Eripu**... Sustraez egindako makilak dituzte. Kabanak ere pberediku bat egin du plazan, herriko gertaerak aipatzen dituelarik. Zenbaiten ustez kauter gehien on bat izateko erdi koblakaria —bertsolaria— behar du izan. Askotan Xiberoko handikiak gogor kritikatzten ditu berdin apez edo hautesi; 1982ko Maskaradan bertso hau egin zuen Jean Jacques Etcheberri kauter gehienak *Desegin nahi diñie gure gaizak / Bena nagüstüko dira Uskaldünak*. Pagolan (Z) urte berean pastoral (ikus 27) bat ari ziren prestatzen eta Kabanak, pastoralaren bertso doinua erabiliz, hau kantatu zuen:

Piñiplin papaplan! / Bi zanhuak batetan! / Ez diat sekulan ikusi / Hainbeste astapito herrokan!

Bedezia/ Medezia: Sendagilea dugu hau; bere lana bukaeran bakarrik ikusten da, Pitxu bezpizten duenean.

Hauk dira gaur egun normalki ateratzen direnak, behiara pertsonaia gehiago ziren: **Hartza**, **Artzaña**, **Axuriak**, **Sapurak**, etab. Batzutan aintzindari beltzak ere izaten dira: **Zamalzain beltza**, **Kantinersa beltza**... 1984an Barkoxek (Z) antolatutako Maskaradan ikusi ahal izan zen bezala.

1. atea
2. debekatu
3. gauza hartzea
4. dianari
5. zurripa
6. bair duazue
7. obitura
8. gaizen bazter
9. herrendik
10. edale
11. triponizi
12. deus gabe